

KONTROL MOZIOA

ABEGI ETXEKO ERANSKINAREN ERABILPENA ETA BALDINTZAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko abenduaren 10ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako bizilekua adingabeak dituzten familientzat erabiltzen den eraikin bat da. Hiru logela -ohatzeekin (2, 6 eta 8 ohe)-, sukalde-jangela bat, bi bainugela eta dutxa bat ditu.

Gizarte-ekintzako 2017ko memoriak jasotakoaren arabera, egonaldiak hiru gaukoak izan ohi dira gehienez, salbuespen kasuetan izan ezik. 2017an, 27 familiak (adingabeekin) erabili dute zerbitzua eta eranskina 204 egunez erabili da; 44 heldu eta 46 adingabe aterpetu dira, guztira.

Azkenaldian jaso dugun informazioaren arabera, hiru gaueko egonaldien kasua salbuespen bihurtzen ari da eta familiek asteak pasatzen dituzte eranskinean. Zerbitzuan lan egiten duten hezitzaile batzuen ustez, erabiltzaileen profila aldatzen ari da eta eranskina ez dago prestatuta egonaldi luzeetarako (garbitasun eta espazio arazoak, ez dago gaituta adingabekoentzat, instalazio eskasak, hezetasuna eta abar).

Abenduko batzordean delegatua gaiaren inguruan interpelatu dugu eta haren erantzuna izan da, alde batetik, gizarte zerbitzuen zorroan jasoa ez dagoen zerbitzu berezi bat dela (hau da, ez dela derrigor eskaini behar) eta, bestetik, dagoeneko hainbat konponketa egin direla.

Talde honen iritziz, nahiz eta derrigorrezko zerbitzua ez izan, 2017an 90 pertsonak (haien artean 46 adingabe) erabili dute eta horrek behar bat dagoela agerian uzten du.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkeztu du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Abegi Etxeko eranskinaren erabileraren inguruko txosten bat egin dezala, beharrak detektatzeko eta erabiltzaileek zein profesionalak egiten duten balorazioa jasotzeko.

2.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2017 eta 2018an eranskinean egon diren familien egonaldien batez besteko datuak parteka ditzala udal taldeekin.

Donostian, 2018ko abenduaren 14an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

IFK/
CIF/
P2007/
400A/
TEE/R/
EL/
01200
697
10655
n 1
2011-
06

IFK/
CIF/
P2007/
400A/
TEE/R/
EL/
01200
697
10655
n 1
2011-
06